



ORIOKOUNDALA

**AKTA**

# Udalbatzarraren ohiko bilkura

**EGUNA:** 2010eko urriaren 26a, asteartea

**TOKIA:** Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

**DEIALDIA:** Lehena

**HASTEKO ORDUA:** 19:00      **BUKATZEKO ORDUA:** 20:50

**BERTARATUAK:**

**Alkatea**

Jon Redondo Lertxundi

**Zinegotziak**

Noemi Ostolaza Arkauz, Martxiel Genova Solaberrieta, Angel del Hoyo Bravo, Karmele Belasko Garro, Jose M. Goiburu Manzisidor, Leire Zinkunegi Lopez De Gereño, Iñaki Koldo Iturain Azpiroz, Juan Vicente Lasa Karrikaburu eta Jesus Jose Juan Rodriguez Pousa.

**Idazkari-kontu-hartzailea**

Jon Carrera Jauregi

Iñaki Garcia Aranbarri zinegotziak (EB-B/Aralar) ez du parte hartzen, herritik kanpo dagoelako.

Udalbatzarraren aztergai-zerrenda irakurri aurretik, talde mistoko zinegotzi Joseba Goiburuk hartzen du hitza eta bertaratuei proposatzen die gai bat sartzea aztergai-zerrendatik kanpo: talde mistoko zinegotziek aurkeztutako mozioa, Espainiako estatuak gazte-mugimenduaren kontra daraman politika errepresiboari buruzkoa.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47.3 artikuluari buruzko Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 83. artikulua agintzen duen eran, udalbatzarraren ohiko bilkura batean aztergai-zerrendatik kanpoko gai bati buruzko erabakia hartu ahal izateko, udalbatzarrak



urgentziazkotzat jo behar du gai hori aldez aurretik, udalbatzarkideen legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin —Orioko udalbatzarraren kasuan, 6 aldeko botorekin—. Gaia aztergai-zerrendan sartzearen urgentziari buruzko bozketa egiten da eta emaitza honako hau da:

Aldeko botoa ematen dute Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Iturain (EB-B/Aralar) eta Lasa (EA) zinegotziek; guztira, **LAU ALDEKO BOTO**.

Kontrako botoa ematen dute Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Genoba (EAJ), Del Hoyo (EAJ) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE) zinegotziek, guztira **BOST KONTRAKO BOTO**.

Kontuan hartuta gaia aztergai-zerrendan sartzearen urgentziaren aldeko botoak gehiengo absolutua izateko behar diren 6 botoak baino gutxiago izan direla, ez da onartzen gai hori aztergai-zerrendan sartzea.

19:05ak direla, talde mistoko Leire Zinkunegi zinegotzia bertaratzen da.

## AZTERGAI ZERRENDA

- 1.- Udalaren 2010eko aurrekontu luzatuari dagozkion 11/2010 eta 12/2010 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteen berri ematea. Kreditu aldaketa horiek kreditu transferentzien eta kreditu gaitze modalitateetan eginak daude, hurrenez hurren.
- 2.- Onartzea, egoki bada, Udalaren 2010eko aurrekontuari dagokion 13/2010 zenbakidun kreditua aldatzeko espediente. Kreditu aldaketa kreditu gehigarrien modalitatean egin dago.
- 3.- Onartzea, egoki bada, ordenantza fiskalen eta beren eranskinen aldaketa, eragina 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera izango duena.
- 4.- Onartzea, egoki bada, auto-taxi zerbitzuaren tarifa urbanoak 2011rako, 'Urola-Kosta' izeneko erregimen bereziko eremuan.
- 5.- Onartzea, egoki bada, Baldintza Juridiko eta Ekonomiko-Administratiboen Orria, arautuko duena Orioko udal kanpineko taberna eta supermerkatuaren zerbitzuak emateko kontratazioa, kontzesio administratiboko erregimenean.
- 6.- Onartzea, egoki bada, Orioko Udaleko etxez etxeko laguntza programaren adjudikazioa arautuko duten Klausula Administratibo Partikularren Orria eta Baldintza Teknikoen Orria.
- 7.- Orioko Bake Epaitegiko bake-epaile titularra eta ordezkoa izendatzeko proposamena.



- 8.- Onartzea, egoki bada, 2010eko azaroaren 10ean egingo den Euskadiko Memoriaren Egunerako Erakundearteko Aldarrikapena.
- 9.- Eskariak eta galderak.

**1.- UDALAREN 2010EKO AURREKONTU LUZATUARI DAGOZKION 11/2010 ETA 12/2010 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEEN BERRI EMATEA. KREDITU ALDAKETA HORIEK KREDITU TRANSFERENTZIEKIN ETA KREDITU GAITZE MODALITATEETAN EGINAK DAUDE, HURRENEZ HURREN.**

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauan ezarritakoa betez, Udalbatzarrak 2010eko udal aurrekontu luzatuari dagozkion bi kreditu-aldaketa espedienteren berri jasotzen du: 11/2010 zenbakiduna, kredituen transferentzien modalitatean, 10.000 euroko zenbatekoa duena, eta 12/2010 zenbakiduna, kredituen gaikuntza modalitatean, 13.231 euroko zenbatekoa duena; bi kreditu-aldaketa espediente horiek dekretuz onartu ditu alkateak, indarrean dauden toki-araubideko lege xedapenek ematen dizkioten ahalmenak erabiliz.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

**2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN 2010EKO AURREKONTUARI DAGOKION 13/2010 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA. KREDITU ALDAKETA KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN EGINA DAGO.**

Udalbatzarrak Udalaren 2010eko aurrekontu luzatuari dagokion 13/2010 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientearen berri jakiten du. Kreditu-aldaketa espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 287.350 euroko kopurua du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hazienda batzorde Informatzaileak 2010eko urriaren 4an egindako bilkuran emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Lasa (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **SEI ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa) eta Zinkunegi (talde mistoa), guztira **HIRU KONTRAKO BOTO**; abstentzio botoak: Iturain (EB-B/Aralar), guztira **ABSTENTZIO BOTO BAT**]:

1.- **LEHEN ONARPENA EMATEA** Udalaren 2010eko aurrekontu luzatuari dagokion 13/2010 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Kreditu aldaketa kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 287.350 euroko kopurua du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** kreditua aldatzeko espediente hori, ondoko arau hauen arabera:



- a) **Erakutsita dagoen lekua:** Idazkaritza–kontu-hartzailletza
- b) **Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea:** Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.
- c) **Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak:** Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.
- d) **Inpugnatzeko arrazoiak:** Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.
- e) **Aurkezteko bulegoa:** Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (asteleheneetik ostiralera 8:30etik 14:30era).
- f) **Erreklamazioak jasotzen dituen organoa:** Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Emandako botoa azaltzeko, talde mistoko Karmele Belasko zinegotziak hartzen du hitza eta adierazten du bere talde politikoak kontrako botoa eman duela bi arrazoiengatik: batetik, ez daudelako ados hondakinen bilketarako eta kale garbiketarako 58.977 euroko partida sortzearekin eta Udal Finantzaziorako Foru Funtzari 2008ko ekitaldi ekonomikoari dagokion 81.973 euroko diru-itzulketa egitearekin; eta, bestetik, ez daudelako ados politika sozialetan gastuak murriztearekin, kontuan hartuta nolako krisi ekonomikoa bizi dugun eta langabezia maila zenbatekoa den.

### **3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORDENANTZA FISKALEN ETA BEREN ERANSKINEN ALDAKETA, ERAGINA 2011KO URTARRILAREN 1ETIK AURRERA IZANGO DUENA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Gaia 2010eko urriaren 21eko Hazienda, Pertsonal eta Kalitate batzorde informatzailean diktaminatu da era honetara: 2010ean indarrean dauden ordenantza fiskalak eta beren eranskinetako zerga-tipo eta tasak 'izoztu' egingo dira, iaz egin zen bezala, honako salbuespenekin:

- 1.- Izaera urbanoko lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zergaren tasa %8tik %9ra igoko da.



2.- Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zergaren tarifak % 2 gehituko dira, orokorrean; baina salbuespen honekin: 14 eta 20 zaldi fiskaleko tartean eta 20 zaldi fiskaletik gorako tartean sailkatuta dauden ibilgailuen tarifak % 4 gehituko dira.

3.- Trakzio Mekanikodun ibilgailuen gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskalaren Eranskinaren II. atalari —hobariak— dagokionez, honako hobariak onartzen dira:

— Ondoko baldintzetako bat betetzen duten ibilgailuek zergaren kuotaren %75eko hobia izango dute:

- Motor elektrikodun ibilgailuak edo ibilgailu hibridoak (elektrikoa-gasolina, elektrikoa-gasolia edo elektrikoa-gasa), fabrikatik homologatuta daudenak, ibilgailu-motari eta modeloari egokitutako gailu katalizatzaileekin, igorpen kutsatzaileak murrizteko.
- Erregai gisa gasa erabiltzen duten ibilgailuak, fabrikatik homologatuta daudenak, ibilgailu-motari eta modeloari egokitutako gailu katalizatzaileekin, igorpen kutsatzaileak murrizteko.

Hobaria eskatu egin behar izango da eta, behin onartuz gero, hurrengo bi urtetan izango du eragina.

Hobariak gozatzeko, Udalak onartu behar ditu alde zuretik; onarpen horrek eskaria egiten den zerga-aldian izango du eragina.

4.- Hondartza inguruko aparkaldi mugatuari dagokion tasaren tarifa igo egiten da: orduko edo zatiko 1,00 € izatetik orduko edo zatiko 1,10 € izatera pasatzen da.

5.- Hondakin solido urbanoak eta zaborrak biltzeko zerbitzuari dagokion tasaren tarifak igo egiten dira: a) epigrafekoak hileko 1€an gehitzen dira eta, beraz, urteko 100,80€an geratzen da; b), c), d), e) eta f) epigrafeen tarifak hileko 2€an gehitzen dira eta, beraz, horrela geratzen dira, hurrenez hurren: urteko 237,60 €, urteko 324 €, urteko 338,40 €, urteko 486 € eta urteko 224,40 €; g), h) eta i) epigrafeen tarifak hileko 3€an gehitzen dira eta, beraz, horrela geratzen dira, hurrenez hurren: urteko 451,20€, urteko 403,20€ eta urteko 984€.

Gizarte-laguntzak jasotzen dituzten tasa honetako zergadunei ez zaie gehikuntzarik aplikatuko a) epigrafean adierazitako tarifa eta, beraz, 2011n indarrean jarraituko du berentzat 2010eko tarifak: urteko 88,80 € etxebizitza bakoitzeko.

6.- Orioko Udal Musika Eskolako musika-irakaskuntzaren tarifak % 7 handituko dira.

7.- Udal Kanpina erabiltzeagatik tarifak % 5 handituko dira.

8.- Udal Kiroldegia erabiltzeagatik tarifak % 5 handituko dira.



Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hazienda, Pertsonala eta Kalitatea batzorde Informatzaileak 2010eko urriaren 21ean egindako bilkuran emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genoba (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Iturain (EB-B/Aralar) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **SEI ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa) eta Zinkunegi (talde mistoa), guztira **HIRU KONTRAKO BOTO**; abstentzio botoak: Lasa (EA), guztira **ABSTENTZIO BOTO BAT**]:

1.- **LEHEN ONARPENA EMATEA** Ordenantza Fiskalen Aldaketari eta bere eranskinei, 2011ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, erabaki honen azalpenean jasota dauden terminotan.

2.- **JENDAURREAN JARTZEA** erabaki hau eta hasitako espedientea, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Aginduaren 16.1 artikuluan ezarritakoa betez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan iragarkiak argitaratuz, honako arauen arabera:

- a) **Ikusgai dauden tokia:** Udaletxeko idazkaritzan.
- b) **Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea:** 30 lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita, bulego orduetan.
- c) **Erreklamazioa aurkez dezaketenak:** Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17. artikuluko zerrendan agertzen direnak.
- d) **Aurkezteko lekua:** Udaletxeko Sarrera Erregistro Nagusian. Erreklamazioak aurkez daitezke, baita ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikulua zehazten dituen tokietan.
- e) **Zein organoren aurrean:** Udalbatzarra.

Jendaurreko epea amaitu eta erreklamazio edo oharrik aurkezten ez bada, hartutako erabakiak behin betikoak bilakatuko dira, beste erabakirik gabe.

Emandako botoa azaltzeko, Bixente Lasa zinegotziak (EA) hartzen du hitza eta adierazten du abstentzio botoa eman duela honako arrazoiagatik: onartu diren gainerako tarifa-gehikuntzekin bat badator ere, ez dagoela ados zaborrak eta hondakin solido urbanoak biltzeko zerbitzuari dagokion tasaren tarifa-gehikuntzarekin; gehikuntza hori %8,67 eta %13,51 artekoa da eta, bere ustez, nahikoa zen tasa horren barruko tarifa guztientzat %5eko gehikuntza onartzearekin; horrez gain, adierazten du zaborrak biltzeko beste sistema berri batzuk jarri beharko direla martxan, 'atez atekoa' esate baterako.



Talde mistoko Karmele Belasko zinegotziak hartzen du hitza eta adierazten du bere talde politikoak kontrako botoa eman duela honako arrazoiagatik, besteak beste: zaborrak eta hondakin solido urbanoak biltzeko zerbitzuari dagokion tasaren tarifetan egindako gehikuntzak guztiz neurrigabeak direla eta, bere ustez, oriotarrek jasan behar duten presio fiskala asko handitzen dutela.

Jesus Rodriguez zinegotziak (PSE-EE-PSOE) hartzen du hitza eta adierazten du berriro esango duela kontu bat, Ordenantza Fiskalei buruz hitz egin izan den aurreko udalbatzarretan ere esan izan duena: zerbitzu publikoak emateagatik kobratzen diren tasak —adibidez, zaborrak eta hondakin solido urbanoak biltzeko zerbitzuari dagozkionak—, defizitarioak badira, ezin dira inolaz ere finantzatu zergen gaineko presio fiskala igoz; hori egitea ez litzateke legezkoa; legezkoa eta arauzkoa zera da: zerbitzu publiko jakin baten tasen tarifak ezartzerakoan, helburuak izan behar duela zerbitzu horren kostuak estaltzea.

Leire Zinkunegi zinegotziak (talde mistoa) hartzen du hitza eta Jesus Rodriguez zinegotziak esandakoari erantzuten dio, esanez zaborren bilketa Udalaren eskumena dela eta, beraz, onartzen diren tarifek ez dutela zertan zerbitzuaren kostua estali.

Azkenik, alkateak hartzen du hitza eta adierazten du onartu diren tarifen gehikuntzak guztiz zilegi direla eta honako hau leporatzen die talde mistoko zinegotziei: ez dutela inolako eragozpenik izan Ordenantza Fiskaletako eta bere eranskinetako tarifetan, osotasunean, %1eko gehikuntza orokorra proposatu eta defendatzeko.

#### **4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, AUTO-TAXI ZERBITZUAREN TARIFA URBANOAK 2011RAKO, 'UROLA-KOSTA' IZENEN ERREGIMEN BEREZIKO EREMUAN.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du; ASOCIACION GIPUZKOANA DEL TAXI elkarteak eskaria aurkeztu du, 2011n auto-taxi zerbitzuaren tarifak aldatzea proposatuz; tarifa berrien proposamenarekin batera, ustiaketa kostuen azterketa ere aurkeztu du.

Urola Kostako Taxien Eskualdeko Batzordeak, 2010eko irailaren 22ko bilkuran, oniritzia eman zion 2011n auto-taxi zerbitzuaren tarifak igotzeko proposamenari.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hazienda, Pertsonal eta Kalitatea batzorde informatzaileak 2010eko urriaren 21ean egindako bilkuran emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **BOST ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa) eta Lasa (EA), guztira **LAU KONTRAKO BOTO**; abstentzioak: Iturain (EB-B/Aralar), guztira **ABSTENTZIO BAT**]:



**ONARTZEA** auto-taxi zerbitzuaren tarifa urbanoak 2011rako, 'Urola-Kosta' izeneko erregimen bereziko eremuan. Tarifa berriak ASOCIACIÓN GIPUZKOANA DEL TAXI elkarteak proposatu ditu eta Urola Kostako Taxien Eskualdeko Batzordeak berretsi ditu, 2010eko irailaren 21ean egindako bileran. Onartutako tarifa urbano berriak honako hauek dira:

AUTO-TAXI ZERBITZUAREN TARIFA URBANOAK 2011					
1. TARIFA*			2. TARIFA**		
Gutxieneko tarifa	Kilometro bakoitzeko	Itxoiten pasatako ordua	Gutxieneko tarifa	Kilometro bakoitzeko	Itxoiten pasatako ordua
4,8726	1,0399	19,8583	5,8002	1,6585	31,2129

Gutxieneko tarifaren barruan sartuta daude ibilbideko 1,5 kilometro edo itxoiten pasatako 5 minutu.

(\*) Tarifa hau lanegunetan aplikatuko da, 07:00etatik 22:00etara.

(\*\*) Tarifa hau egunero aplikatuko da, 22:00etatik 07:00etara. 2. tarifa aplikatuko da, baita ere, igande, larunbat eta jai egunetan, 07:00etatik 22:00etara.

## **5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, BALDINTZA JURIDIKO ETA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN ORRIA, ARAUTUKO DUENA ORIOKO UDAL KANPINEKO TABERNA ETA SUPERMERTUAREN ZERBITZUAK EMATEKO KONTRATAZIOA, KONTZESIO ADMINISTRATIBOKO ERREGIMENEAN.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Karmele Belasko zinegotziak (talde mistoa) hartzen du hitza eta proposatzen du gai hau mahai gainean uztea, hurrengo udalbatzar batean erabakitzeko. Ikusita nola joan den orain arte kanpineko taberna eta supermerkatu zerbitzuen adjudikazioaren gaia (hutsik geratutako deialdiak, urtebete eskas eginda kontzesioari uko egin dion adjudikazioduna...), Karmelek adierazten du Udalak poliki aztertu beharko lukeela kontu hau, alternatiba guztiak mahai gainean jarrita, eta alde zuzenetik baztertu gabe zerbitzu horiek udal langileen bitartez emateko posibilitatea.

Alkateak hartzen du hitza eta Karmele Belaskori erantzuten dio gai hau diktaminatu dela dagoeneko Hazienda, Pertsonala eta Kalitatea batzorde informatzailean eta bertan





azaldu zela zerbitzu horiek ezin direla zuzenean udal langileen bitartez edota Orio Garatzen SL Udal Sozietate Publikoaren bitartez gestionatu.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hazienda, Pertsonala eta Kalitatea batzorde Informatzaileak 2010eko urriaren 21ean egindako bilkuran emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genoba (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Iturain (EB-B/Aralar), Lasa (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa) eta Zinkunegi (talde mistoa), guztira **HIRU KONTRAKO BOTO**]:

**ONARTZEA** Baldintza Juridiko eta Ekonomiko-Administratiboen Orria, arautuko duena Orioko udal kanpineko taberna eta supermerkatuaren zerbitzuak emateko kontratazioa, kontzesio administratiboko erregimenean; baldintza-orriaren laburpena hau da:

#### 1.- Erakunde adjudikatzailea.

- A) Erakundea: Orioko Udala.
- B) Espedientea tramitatzen duen bulegoa: Idazkaritza-kontu-hartzaitza

#### 2.- Kontratuaren xedea.

Xedearen deskribapena: Orioko udal kanpineko taberna eta supermerkatu zerbitzuak kontzesio administratiboko erregimenean ematea.

Kontratuaren iraupena: Kontratuaren iraupena adjudikazio-datatik 2011ko abenduaren 31 artekoa izango da. Kontratua luzatu ahal izango da, elkarren arteko adostasuna baldin badago; baina, luzapen eta guzti, iraupena ez da inoiz izango bost urte baino gehiagokoa.

#### 3.- Tramitazioa, prozedura eta adjudikatzeko era.

- A) Tramitazioa: Ohikoa.
- B) Prozedura: Irekia.
- C) Modua: Lehiaketa.

#### 4.- Gutxieneko kanona.

Urteko gutxieneko kanona 15.000 eurokoa izango da (BEZ barne) Lizitatzailleek aukera izango dute kopuru hori hobetzeko.

#### 5.- Bermeak.

Behin betikoa: 15.000 €.



## 6.- Iragarki gastuak.

Adjudikaziodunaren kontu eta kargura izango dira.

## 7.- Dokumentazioa lortzeko.

Baldintza-orria [www.oriok.com](http://www.oriok.com) webgunean eta Udaleko idazkaritzan eskuratu ahal izango da.

## 8.- Proposamenak aurkeztea.

A) Epea: Hogeita hamar egun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

B) Aurkeztu beharreko dokumentazioa: Baldintza-orrian zehaztutakoa.

C) Tokia: Udaletxeko idazkaritza-kontu-hartzailera. Herriko Plaza, 1. 20810 Orio.

D) Ordutegia: astelehenetik ostiralera: 8:30etik 14:30era.

## 9.- Proposamenen irekiera.

A) Tokia: Orioko Udala

B) Data: Proposamenak aurkezteko epea bukatu eta hurrengo lanegunean; egun hori larunbatarekin egokitzen bada, data hurrengo lanegunera pasako da.

C) Ordua: 12:00etan.

## **6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALEKO ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA PROGRAMAREN ADJUDIKAZIOA ARAUTUKO DUTEN KLAUSULA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN ORRIA ETA BALDINTZA TEKNIKOEN ORRIA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Gizarte Ongizate batzorde Informatzaileak 2010eko urriaren 21ean egindako bilkuran emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genoba (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Iturain (EB-B/Aralar), Lasa (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa) eta Zinkunegi (talde mistoa), guztira **HIRU KONTRAKO BOTO**]:



**ONARTZEA** Orioko Udaleko etxez etxeko laguntza programaren adjudikazioa arautuko duten klausula administratibo partikularren orria eta baldintza teknikoaren orria; baldintza-orriaren laburpena hau da:

**Xedea:** Orioko Udaleko etxez etxeko laguntza programa adjudikatzea.

**Zerbitzuaren gehienezko prezioa:**

- 18,25 euro/orduko (BEZa barne) (lanegunean).
- 21,91 euro/orduko (BEZa barne) (jaiegunean).

**Azurza Etxeko babespeko apartamentuen arreta-zerbitzua**

- Banakako logelak: 627 euro/hileko
- Binakako logelak: 1.142 euro/hileko.

**Iraupena:** Kontratuaren iraupena bi urtekoa izango da eta, ondoren, urtero luzatu ahal izango da, gehienez ere hamar urtera arte.

**Behin-behineko bermea:** 5.000,00 euro.

**Behin betiko bermea:** Adjudikazio-prezioaren %5.

**Espedientea eta baldintza-orria aztertzeko:** Baldintza-orria eta gainerako dokumentazioa udal idazkaritzan jaso daiteke (Herriko Plaza, 1), iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

**Pliken aurkezpena:** Toki berean, 8:30etik 14:30era, hogeita hamar eguneko epean, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita; azken eguna larunbatarekin egokitzen bada, epea hurrengo lanegunean amaituko da.

**Proposamenen irekiera:** Proposamenak aurkezteko epea bukatu eta hurrengo asteko lehen lanegunean, eguerdiko 12:00etan.

**Proposamen-eredua eta aurkeztu beharreko dokumentazioa:** Lizitatzailerak baldintza-orriaren aurreikusitako proposamen-ereduaren arabera aurkeztu behar dituzte beren eskaintzak, bertan adierazten diren dokumentu guztiak erantsiz.

**Iragarki gastuak:** Adjudikaziodunaren kontu eta kargura izango dira.

Emandako botoa azaltzeko, Leire Zinkunegi zinegotziak (talde mistoa) hartzen du hitza eta adierazten du Gizarte Ongizate batzorde informatzailearen bilkuran baiezko botoa eman ziola baldintza-orri hau onartzeari; baina, bilkura hori eta gero, izan duela 13/2010 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientearen berri eta, espediente horretan



gastu sozialak murriztea planteatzen denez, iritzia aldatu duela, bere ustez gastu sozialen murrizketa ez baita bateragarria baldintza-orri hau onartzearekin.

Ondorioz, bere ustez, Orioko Udalak gizarte-laguntzak gehitu behar ditu, onuradun gehiagorengana iris daitezten eta, horrez gain, etxez etxeko laguntza-zerbitzua ematen duten langileen lan-baldintzak hobetu behar ditu.

Alkateak hartzen du hitza eta erantzuten dio oso harrigarriak egiten zaizkiola Leire Zinkunegik erabilitako arrazoiak, eta ez dituela ulertzen.

Noemi Ostolaza zinegotzi eta Gizarte Ongizate batzorde informatzailearen buruak hartzen du hitza eta adierazten du oriotar bakar bat ere ez dela gelditu etxez etxeko laguntza-zerbitzua jaso gabe eta, 2010ean gastu gutxiago sortu badira, zerbitzua jende gutxiagok eskatu duelako izan dela.

Azkenik, Karmele Belasko zinegotziak (talde mistoa) hartzen du hitza eta adierazten du ez zaiola ondo iruditzen etxez etxeko laguntza-zerbitzua azpikontratatea eta, bere talde politikoaren ustez, zerbitzu hori udal-langileen bitartez eman beharko litzatekeela.

## **7.- ORIOKO BAKE EPAITEGIKO BAKE-EPAILE TITULARRA ETA ORDEZKOA IZENDATZEKO PROPOSAMENA.**

Idazkariak irakurri egiten ditu barrutiko Bake Epaitegiko epaile titularra eta epaile ordezkoa aukeratzeko aplikagarriak diren lege-arauak eta irakurtzen ditu, baita ere, horretarako irekitako espedientean gaurko egunera arte ageri diren diligentiak eta jarduerak.

2010eko irailaren 16ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (178. zenbakia) eta udaletxeko iragarki-taulan argitaratutako iragarkiaren bidez, Orioko Udalak jakinarazi zuen, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 99.etik 103.era arteko artikuluetan eta bake-epailei buruzko ekainaren 7ko 3/95 Erregelamenduan ezarritakoaren arabera, udalbatzarrari dagokiola pertsonak aukeratzea bake-epaile titular eta bake-epaile ordezko izendatuak izateko; interesa duten pertsonak instantzia aurkeztu behar dute udaletxeko erregistro nagusian, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeita eguneko epearen barruan; interesatuek instantzian jaso behar dute exijitutako betebeharrak guztiak betetzen dituztela, eta agiriak aurkeztu behar dituzte, hori frogatzeko eta ezgaitasunik edo bateraezintasunik ez dutela frogatzeko; hautagaiek erantsi behar dute, baita ere, txosten labur bat, beren hautagaitzaren egokitasuna arrazoituz eta behar diren xehetasunak emanez hori baloratzeko; behin instantziak aurkezteko epea bukatuta, udalbatzarrak aukeratuko ditu bake-epaile titularra eta bake-epaile ordezkoa aurkeztu direnen artean, baldin eta legeak ezartzen dituen betebeharrak betetzen badituzte; hautagaitzarik ez balego, udalbatzarrak libreki aukeratuko ditu, ezarritako prozedurari jarraituz, eta eskumena duen Jurisdikzio Organoari jakinaraziko dio gero.



Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 101.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, udalbatzarraren eskumena da bake-epaile titularra eta bake-epaile ordezkoa aukeratzeko proposamena egitea; erabakia udalbatzarkideen legezko kopuruaren gehiengo absolutuaren aldeko botoarekin hartu behar da (hau da, hamaika udalbatzarkideen gehiengo absolutuaren aldeko botoekin).

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta Hazienda, Pertsonala eta Kalitatea Batzorde Informatzaileak 2010eko urriaren 21ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ [guztira HAMAR BAIEZKO BOTO]:**

1.- **FELIPE AROSTEGI IBARGUREN** (nortasun-agiria: 15.102.669-H; jubilatua; 74 urtekoa; 943831291 telefonoa; helbidea: Orioko Estropalari 20, 1.C) **AUKERATU ETA PROPOSATZEA** Orioko Bake Epaitetikiko bake-epaile titular kargurako. Hala ere, kargua betetzeko, proposatutako pertsonak espresuki onartu beharko du eta, aldi berean, aitorten bat aurkeztu beharko du, adieraziz ez dagoela sartuta Botere Judizialaren Lege Organikoaren 102., 302., 303. eta 389. artikuluetan eta bake-epaileei buruzko ekainaren 7ko 3/1995 Erregelamenduan aurreikusitako kargu judizialak betetzeko ezgaitasun edo bateraezintasun kausetako batean.

2.- **SANTIGO ZALDUA OTEGI** (nortasun-agiria: 15.869.162-J; Gizarte Lanetan diplomatua; 61 urtekoa; 943832055 telefonoa; helbidea: Orioko Urdaire 5, 3.) **AUKERATU ETA PROPOSATZEA** Orioko Bake Epaitetikiko bake-epaile ordezkotako kargurako. Hala ere, kargua betetzeko, proposatutako pertsonak espresuki onartu beharko du eta, aldi berean, aitorten bat aurkeztu beharko du, adieraziz ez dagoela sartuta Botere Judizialaren Lege Organikoaren 102., 302., 303. eta 389. artikuluetan eta bake-epaileei buruzko ekainaren 7ko 3/1995 Erregelamenduan aurreikusitako kargu judizialak betetzeko ezgaitasun edo bateraezintasun kausetako batean.

3.- **BIDALTZEA** udalbatzarraren erabaki honen hitzez hitzezko ziurtapena Euskadiko Justiziako Auzitegi Gorenaren presidenteari, karguak betetzeko proposatutako pertsonen berariazko onarpenekin eta ezgaitasun edo bateraezintasun kausatan sartuta ez daudela dioten aitortenekin batera, dagozkion izendapenak egin ditzan, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 101.3 artikulua ezarritakoaren arabera.

## **8.- ONARTZEA, EGOKI BADA, 2010EKO AZAROAREN 10EAN EGINGO DEN EUSKADIKO MEMORIAREN EGUNERAKO ERAKUNDEARTEKO ALDARRIKAPENA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. EUDELeK bidalitako aldarrikapenak honela dio, hitzez hitz:

*Gaur, herri honen historian lehen aldiz, garrantzi handiko jardunaldi bat ospatzen dugu. Euskal erakundeen akordio sendo baten bidez, azaroaren 10a*



*MEMORIAREN EGUNA da eta izango da Euskadin. Eta honelako egun batean, honako hau aldarrikatu nahi dugu:*

*1.- Euskal hiritarrok eskubidea dugu elkarrekin bakean eta askatasunean bizitzeko, totalitarismoaren, indarkeriaren eta bazterketaren mehatxurik gabe. Terrorismoa amaitzea eta bakea erdiestea dira euskal gizartearen eta euskal gizartea ordezkatzan duten erakundeen helburu nagusiak.*

*2.- Euskaldunok eta euskal erakundeok terrorismoaren biktimen memoria etorkizuneko erreferente bihurtu arteko onik ez daukagu, hain zuzen ere bakea, askatasuna, tolerantzia, justizia eta aniztasunarekiko errespetua ardatz izango dituen etorkizuneko erreferentea.*

*3.- Memoria ez da bakarrik terrorismoaren indarkeria jasan behar izan duten pertsonen oinarrizko eskubidea. Biktimaren ikuspegiaren bidez, denok konpartitzen dugun gertaeren benetako kontakizun bat eraikitzeko argumentu bat ere bada. Kontakizun horretan, indarkeria eta indarkeriaren justifikazio guztiak behin betirako alboratuta geratuko dira eta indarkeriaren biktimak betirako aintzatetsiko dira, gizalegezko adiskidetasun batean.*

*4.- Terrorismoak ezinezkoak diren aitzakiak eta justifikazioak ipintzen dituen tokian memoriak izenak eta datak ipintzen ditu. Memoriak sufrimendu bidegabearen inguruko akta idazten du eta e impide ningún tipo de tolerancia con la impunidad. Memoriak, azken baten, hiritarrok babestu egiten gaitu; gertatutakoa derrigorrez edo interesengatik ez ahaztea laguntzen digu.*

*5.- Gaur, terrorismoaren biktima guztiak ditugu gogoan, salbuespenik gabe. ETAk, hau da, euskaldunon arteko elkarbizitza oraindik mehatxatzen jarraitzen duen talde terrorista bakarrak eragindako beldurraren biktimak; baina, baita ere, beste talde terrorista batzuek eragindako biktimak. Talde horiek, nahiz eta gaur egun iraganekoak izan, sufrimendua eragin zuten eta, horregatik, biktima horiek ere aintzatespen eta aitormen berak merezi dituzte.*

*6.- Memoria gordetzea da gure artean ez daudenei eman diezaiekegun zerbitzurik onena, eta baita terrorismoaren biktima guztien sufrimenduagatik ere. Kontuan hartuz guztiak, oraina, baina batez ere, etorkizuna: biktima guztien oroimena gordetzen badugu, bakean eta askatasunean oinarritutako etorkizuna izango dugu, elkarbizitza zintzoa izan dezagun.*

*7.- Gaur, azaroak 10, guztion ondarearen zati den eguna da. Azaroak 10 guztion den urtemuga da. Gaurtik aurrera, efemeride honek gertatutakoa gogoraraziko digu, inoiz gehiago gerta ez dadin. Biktimen memoria bizirik izanik, guztiontzat hobe izango den etorkizunean fedea eta itxaropena izan ditzagula.*

Iñaki Iturain zinegotziak (EB-B/Aralar) hartzen du hitza eta honako hau adierazten du: erakunde arteko aldarrikapenaren testuaren 5. atalean ez daude jasota terrorismoaren



biktima guztiak; hau da, ‘beste talde terrorista batzuek eragindako biktimak’ aipatzen direnean, espresuki aipatu behar dira Batallon Vasco-Español, Triple A, AT eta GALen biktimak eta, baita ere, 1936-39ko Espainiako gerra zibileko errepresio frankistaren biktimak eta bestelako batzuk: Mikel Zabalza, Gladis del Estal eta German Rodriguez.

Leire Zinkunegi zinegotziak hartzen du hitza eta adierazten du, bere ustez, aipatu beharko lirатеkeela, baita ere, euskaraz hitz egiteagatik txikitatik torturatuak izan direnak.

Joseba Goiburu zinegotziak (talde mistoa) hartzen du hitza eta honako hau adierazten du: guztiz bat datorrela erakundearteko aldarrikapenaren 1. atalaren aurreneko zatiarekin (“Euskal hiritarrok eskubidea dugu elkarrekin bakean eta askatasunean bizitzeko, totalitarismoaren, indarkeriaren eta bazterketaren mehatxurik gabe...”); nolahi ere, adierazten du ez datorrela bat 1. atalaren bigarren zatiarekin, zeren eta, ‘terrorismoaz’ hitz egitean, ETAz ari baita bakar-bakarrik eta ez estatuaren terrorismoaz. Azkenik, adierazten du Euskal Herriak aspalditik daukala memoria indibidual eta kolektiboa.

Bestalde, adierazten du ez duela ulertzen zergatik ez diren aipatzen testuan Batallon Vasco-Español, Triple A, AT eta GALen biktimak; bere ustez, erakundearteko aitorten hori PSE-EE-PSOEek eta PPK idatzi dute eta EAJK bat egin du testuarekin.

Adierazten du, azkenik, aitortenak ez dituela jasotzen, ezta ere, Lasa eta Zabalaren hilketak, Mikel Zabaltzarena, edota tortura-kasuak: Mattin Sarasolak eta Igor Portuk jasandakoak edota azken aldian estatuko indar armatuek atxilotu eta torturatutakoek jasandakoak.

Iñaki Iturain zinegotziak hartzen du hitza eta adierazten du aldeko botoa emango diola erakundearteko aitortena onartzeari, baldin-eta berariaz aipatzen badira estatu zapaltzailearen biktimak (Txiki, Otaegi, Lasa eta Zabala, Gladis del Estal, German Rodriguez eta Batallon Vasco-Español, Triple A, AT eta GALen biktimak).

Hala ere, Iñaki Iturainek adierazten du elkartasuna adierazi nahi diela Orion hil zuten Juan Priede zinegotzi sozialistari eta haren senideei eta, horregatik, azaroaren 10ean Orion egingo diren Memoriaren Eguneko ekintzetan parte hartuko duela, modu indibidualean.

Joseba Goiburu zinegotziak hartzen du hitza eta proposatzen du gaia mahai gainean uztea, talde politiko guztien artean testu alternatibo bat adosteko, barnean sartuko dituen, besteak beste, terrorismoaren biktima guztiak (BVE, AAA, AT eta GALek sortutakoa barne), estatu zapaltzailearen biktimak (Lasa, Zabaltza...) eta estatuaren indar armatuek torturatutako guztiak.

Azkenik, adierazitakoak ikusita, alkateak hartzen du hitza eta proposatzen du bi testu bozkatzea: batetik, EUDELEk bidali duen erakundearteko aldarrikapenaren testua, EUDELEk Eusko Legebiltzarraren presidentearekin, Eusko Jaurilaritzako Barne



Sailburuarekin eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Batzar Nagusien presidenteeekin adostutakoa; eta, bestetik, testu berbera, baina 5. atalean Batallon Vasco-Español, Triple A, AT eta GALen terrorismoaren biktimak eta estatu zapaltzailearen biktimak (Lasa, Zabala, Mikel Zabaltza, Gladis del Estal, German Rodriguez...) ere sartuta.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, EUDELeK bidalitako erakundearteko aldarrikapenaren testua bozkatzeko da, honako emaitzarekin:

Aldeko botoa ematen dute Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Genoba (EAJ), Del Hoyo (EAJ) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE) zinegotziek, guztira **BOST ALDEKO BOTO**.

Kontrako botoa ematen dute Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa), Iturain (EB-B/Aralar) eta Lasa (EA) zinegotziek, guztira **BOST KONTRAKO BOTO**.

Bozketan berdinketa gertatu denez (5 aldeko boto eta 5 kontrako boto), toki-araubidearen alorrean indarren dauden lege-xedapenek agintzen duten moduan, bigarren bozketa egiten da, emaitza berberarekin (5 aldeko boto eta 5 kontrako boto). Alkateak ez du kalitatezko botoa erabiltzen eta, beraz, **MAHAI GAINEAN GERATZEN DA** Euskadiko Memoriaren Egunerako EUDELeK bidalitako erakundearteko aldarrikapenaren onarpena.

Segidan, EAJ, Aralar eta EA alderdi politikoez adostu duten aldarrikapenaren testua bozkatzeko da. Testu horrek honela dio, hitzez hitz:

*Gaur, herri honen historian lehen aldiz, garrantzi handiko jardunaldi bat ospatzen dugu. Euskal erakundeek akordio sendo baten bidez, azaroaren 10a MEMORIAREN EGUNA da eta izango da Euskadin. Eta honelako egun batean, honako hau aldarrikatu nahi dugu:*

*1.- Euskal hiritarrok eskubidea dugu elkarrekin bakean eta askatasunean bizitzeko, totalitarismoaren, indarkeriaren eta bazterketaren mehatxurik gabe. Terrorismoa amaitzea eta bakea erdiestea dira euskal gizartearen eta euskal gizartearen ordezkatzen duten erakundeek helburu nagusiak.*

*2.- Euskaldunok eta euskal erakundeek terrorismoaren biktimen memoria etorkizuneko erreferente bihurtu arteko onik ez daukagu, hain zuzen ere bakea, askatasuna, tolerantzia, justizia eta aniztasunarekiko errespetua ardatz izango dituen etorkizuneko erreferentea.*

*3.- Memoria ez da bakarrik terrorismoaren indarkeria jasan behar izan duten pertsonen oinarrizko eskubidea. Biktimaren ikuspegiaren bidez, denok konpartitzen dugun gertaeren benetako kontakizun bat eraikitzeko argumentu bat ere bada. Kontakizun horretan, indarkeria eta indarkeriaren justifikazio guztiak behin betirako alboratuta geratuko dira eta indarkeriaren biktimak betirako aintzatetsiko dira, gizalegezko adiskidetasun batean.*





4.- *Terrorismoak ezinezkoak diren aitzakiak eta justifikazioak ipintzen dituen tokian memoriak izenak eta datak ipintzen ditu. Memoriak sufrimendu bidegabearen inguruko akta idazten du eta zigorgabetasunarekiko tolerantzia eragozten du. Memoriak, azken baten, hiritarrok babestu egiten gaitu; gertatutakoa derrigorrez edo interesengatik ez ahaztea laguntzen digu.*

5.- *Gaur, terrorismoaren biktima guztiak ditugu gogoan, salbuespenik gabe. ETAk, hau da, euskaldunon arteko elkarbizitza oraindik mehatxatzen jarraitzen duen talde terrorista bakarrak eragindako beldurraren biktimak; baina, baita ere, beste talde terrorista batzuek (Batallon Vasco-Español, Triple A, AT, GAL) eragindako biktimak. Talde horiek, nahiz eta gaur egun iraganekoak izan, sufrimendua eragin zuten eta, horregatik, biktima horiek ere aintzatespen eta aitormen berak merezi dituzte.*

6.- *Kontutan izan nahi ditugu, baita ere, estatuak bere indar armatuarekin hildakoak, hala nola, Gladis del Estal, German Rodriguez edota Mikel Zabalza, besteak beste.*

7.- *Memoria gordetzea da gure artean ez daudenei eman diezaiekegun zerbitzurik onena, eta baita terrorismoaren biktima guztien sufrimenduagatik ere. Kontuan hartuz guztiak, oraina, baina batez ere, etorkizuna: biktima guztien oroimena gordetzen badugu, bakean eta askatasunean oinarritutako etorkizuna izango dugu, elkarbizitza zintzoa izan dezagun.*

8.- *Gaur, azaroak 10, guztion ondarearen zati den eguna da. Azaroak 10 guztiona den urtemuga da. Gaurtik aurrera, efemeride honek gertatutakoa gogoraraziko digu, inoiz gehiago gerta ez dadin. Biktimen memoria bizirik izanik, guztiontzat hobea izango den etorkizunean fedea eta itxaropena izan ditzagula.*

Udalbatzarrak **ONARTU EGITEN DU** aipatutako erakundearteko aldarrikapena, **BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Iturain (EB-B/Aralar) eta Lasa (EA), guztira **SEI ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **LAU KONTRAKO BOTO**].

Emandako botoa azaltzeko, Joseba Goiburuk hartzen du hitza eta adierazten du ez dagoela batere ados bozketaren prozedurarekin, zeren eta bere talde politikoak ez baitu aukerarik izan, denbora faltagatik, testu alternatibo bat landu eta proposatzeko; bere ustez, egokiena zen Euskadiko Memoriaren Eguneko erakundearteko aldarrikapenaren onarpena mahai gainean uztea, talde politiko guztien artean testu alternatibo bat adostu arte.

Adierazten du, baita ere, bere talde politikoarentzat azaroaren 10a ez dela egunik aproposena ospakizun horretarako, zeren eta, egun horretan, 1977an eta 1983an, atentatu terrorista bana izan baitzen.



Azkenik, Iñaki Iturain zinegotziak hartzen du hitza eta udalbatzarkideei proposatzen die testu alternatibo bat prestatzea, udalbatzarra osatzen duten talde politiko guztien artean adostua, talde mistoko zinegotziek proposa ditzaketen aldaketak ere sartuz.

## **9.- ESKARIAK ETA GALDERAK.**

Ez ziren izan.

Horrenbestez, udalbatzarrera bertaratutako pertsonetako batzuk hitza hartu eta gero, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

**ALKATE-PRESIDENTEA,**

**IDAZKARIA,**